


# 9 AZPEITIA ↔ ZESTOA



**PR-Gi 138** ibilbidea Azpeitia eta Zestoa artekoa da, eta Izarraizko mendigunearen mendebaldea inguratzen du, hegalaren erdialdean eta zailtasun handirik gabe. Ibilbide ezin hobea da basoan ibiltzea atsegin dutenentzat, eta udako egun beroetan egiteko aproposa da, zuhaitzen itzala zati askotan antzematen baita. Gure aholkua da ibilbidea Azpeititik Zestoarantz egitea. Azpeititik Loiolarako errepidea Olatzeranzko errepidearekin gurutzatzen den gunean hasi behar da, eta bide horretan aurrera jarraitu eta komentua inguratu. Ibilbidearen hasieran, Azpeitia Izarraizko magalean inguratzen duten baserrien artean gora egin behar da; hasierako igoera gogorra da, baina ibilbidearen gainerako zatiak errazagoak dira: bidea hegalaren erdialdean zehar doa gehienbat, maldaren bat egon badagoen arren. Azpeitiko azken baserriak igaro eta pixka bat geroago, insignis pinudiak izango ditugu inguruan, inguruko paisaiaren zati handi batean daudenez gero.

La ruta **PR-Gi 138** (Azpeitia-Zestoa) nos permitirá rodear el macizo de Izarraitz por su lado oeste, a media ladera y sin muchas dificultades. Es un recorrido ideal para quien le guste caminar bajo bosque y apta para los días calurosos de verano, ya que la sombra de los árboles nos acompañará durante muchos tramos. Recomendamos hacer la ruta en sentido Azpeitia - Zestoa. Partiendo de Azpeitia iniciaremos el recorrido en el cruce de la carretera de Azpeitia a Loliola con la carretera a Olatz, y proseguiremos por esta vía rodeando el convento. Desde Azpeitia, en una primera parte del recorrido, ascenderemos a través del entorno de caseríos que rodean la población sobre la falda del Izarraitz. Tras una fuerte subida inicial el resto del recorrido será más descansado, a media ladera en su mayor parte, aunque con la excepción de algún repecho. Poco después de dejar los últimos caseríos de Azpeitia nos encontraremos rodeados por plantaciones de pino insignis, que ocupan una gran parte del paisaje a nuestro alrededor. Conforme nos vayamos acercando a Zestoa, todavía a medio camino,



Abieta baserria - Caserio Abieta

Zestoara hurbildu ahala, bidearen erdialdean, Aizbakar arroka dago baserri batzuen ondoan eta, hortik aurrera, itsasoa ikus daitezke; Urola bailara eta bertako herrien kokalekua ere ikus daitezke, baita Izarraizko mendigunearen iparraldea ere.

Bideari jarraiki, Ondarbasoko bidegurutzera helduko gara laster eta, handik, Goltzibarreraino jaitsi behar da; erriberako baso handiek ixten dute ibarra. Errekaostari jarraiki, Sasarraingo baserri-eskolara, Ekaingo haizulora, Lili jauregira eta, azkenik, Zestoara iritsiko gara.

Bestalde, ibilbidea Zestoatik Azpeitira eginez gero, abiapuntua Laiturri izeneko iturria da, Zestoako zubi zaharraren alboan dagoena, eta, handik, Lili jauregiaren aurrean pasatzen den bidea hartu behar da.



Oranda beheko

Nabarmendu beharra dago haizulotan aberatsa den ingurunea dela hau eta, horietako askotan, jendea bizi izan zela historiaurrean. Guztietan nabarmengarriena, adierazgarririk onena Ekaingoa da, 70 irudiz gora osatutako arte multzoa baitu: irudi gehienak margotuta daude, eta beste batzuk, grabatuta. Gehien irudikatutako elementua zaldia da, baina bisontek, oreinak, ahuntzak, hartzak eta izokin bat ere ageri dira. Pinturak Madeleine aldikoak dira, eta 12.000tik 14.000 urtera bitartean dituzte. Erreplika bide aldamenen kokatuta dago eta laster zabalduko dute.



Aizbakar ingurua - Cerca de Aizbakar



Ondarbaso baserria - Caserio Ondarbaso

observaremos poco después de una zona de caseríos la roca de Aizbakar sobre nuestras cabezas, y a partir de aquí comenzaremos a vislumbrar el mar. En el recorrido podremos disfrutar de la vista del valle del Urola y observar la ubicación de sus pueblos, así como del lado norte del macizo de Izarraiz. Siguiendo el camino pronto llegaremos al cruce de Ondarbaso, desde donde descendemos hasta el valle de Goltzibar, con extensos bosques de ribera que cierran el valle. Continuando por el curso del riachuelo llegaremos a la altura de la granja-escuela Sasarraín, la cueva de Ekain, el palacio Lili y finalmente Zesto. Si optamos por hacer el recorrido en dirección Zesto-Azpeitia el lugar de inicio es la fuente de Laiturri junto al Puente Viejo de Zesto. Desde ese punto tomaremos el camino que discurre frente al palacio Lili. Hay que destacar el hecho de que nos encontramos ante una zona rica en cuevas, muchas de las cuales fueron habitadas en época prehistórica.



Zubi Zaharra / Puente Viejo - Zesto



Zesto

Entre todas ellas destaca la de Ekain, su mejor exponente, que posee un importante conjunto de arte rupestre compuesto por más de 70 figuras, la mayoría pintadas y algunas grabadas. El elemento más común representado es el caballo, seguido de otros animales como bisontes, ciervos, cabras, osos o un salmón. Las pinturas, pertenecientes al Magdaleniense, tienen una antigüedad de entre 12.000 y 14.000 años. La réplica será próximamente abierta al público.

## Gipuzkoako basoak Los bosques de Gipuzkoa

Gizakia Neolitoan, duela 5.000 bat urte hasi zen Gipuzkoako basoak poliki baina tinko eraldatzen, basoak lehenengoz suaren bitartez soildu zituenean. Basoen ordez larreak sortzea errazen zen tokietan, hau da mendia garaienetan, hasi zen fenomeno; horrela berez, abeltzaintzarekin eta transhumantziarekin lotuta zegoen hasiera batean. Geroago, burdinolak sortu zirenean, Erdi Aroan, aldaketa handia gertatu zen basoen bilakaeran, ikatz-beharrak handiak baitziren.

XV. mendean, joera hori areagotu egin zen eta, aldi berean, ontzizintzarako egurra gero eta beharrezkoagoa zen; gainera, biztanle kopurua hazi egin zen eta, ondorioz, baso gehiago luberritu behar izan ziren, larreak eta laborantza-lurrak sortzeko. Azkenik, XVIII. mendearen amaierako eta XIX. mendeko gerrek ere oso eragin txarra izan zuten basoetan.

Hartara, XX. mendearen hasieran, egoerak muga jo zuen, Gipuzkoako baso gehienak galdu zituen eta. Kanpoko espezieak ekartzen hasi ziren handik gutxira, eta halaxe eratu zen gaur egun lurraldearen zati handi batean antzematen den paisaia.

Los bosques de Gipuzkoa comenzaron su lenta pero inexorable transformación por la mano del hombre en el Neolítico, hace unos 5.000 años, cuando se realizaron las primeras deforestaciones mediante el fuego. Las zonas donde era más fácil sustituir los bosques por pastizales, aquellas situadas a mayor altura, fueron las primeras en sufrir este fenómeno, ligado por ello a la ganadería y a la trashumancia. Posteriormente, la aparición de las ferrierías en la Edad Media y el desarrollo de la construcción naval, industrias ávidas de carbón y madera respectivamente, originaron un notable retroceso de los bosques. A todo ello se sumó el aumento de población que hizo necesario roturar más bosque para crear nuevos pastos y cultivos. Finalmente, las guerras de final del siglo XVIII y siglo XIX afectaron también muy negativamente a la extensión de la cubierta arbórea del territorio. De esta manera, a principios del siglo XX, se llegó a una situación límite, cuando Gipuzkoa había perdido ya la mayor parte de su masa forestal. Poco después se comenzó a aplicar una política de introducción de especies foráneas, que es la que ha dado lugar al paisaje que hoy día conocemos en gran parte del territorio.

